

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onespena ematea eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketari buruzko udal zerga ordenantzari

Udalbatzak, 2020ko azaroaren 6ko osoko bilkuran, hasierako onespén eman zion eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketaren gaineko udal zerga ordenantzari. Jendaurrean egon ziren bitartean –2020ko azaroaren 20ko ALHAOn (132. zk.) argitaratu zen iragarkia– erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onesten da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oso-osorik argitaratzen da aipatutako ordenantza horren testua.

Erabaki eta ordenantza horien aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, 29/1998 Legeak (uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO ZERGA ORDENANTZA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da eraispén, eraikuntza eta indusketa obretako lurren, hondarren eta obra hondakinen kudeaketarako ekintzak arautzea, hondakin hauek natura baliabideetan, ingurumenean eta bizi kalitatean izan dezaketen eragina saihesteko.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan; horretarako aintzat hartu dira Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua, eta Hondakinen Plan Nazional Integratua 2008-2015.

a) “Eraikuntza eta Eraispén Hondakina” (EEH): edozein substantzia edo objektu, hondakinak arautzeko araudian jasotzen den «hondakin» izateko definizioa betez gero, eraikuntza edo eraispén obra batean sortzen bada.

b) “Hondakin bizigabea”: Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko esanguratsurik ez duen arriskurik gabeko hondakina, ez da disolbagarria, ez da erregaia, ez du fisikoki, kimikoki edo beste edozein modutan erreakzionatzen, ez da biodegradagarria, ez du ukitzen dituen beste materietan eragin negatiborik, ondorioz, ez du ingurumena kutsatzen, ezta gizakien osasuna kaltetzen ere. Erabateko lixibiabilitatea, hondakinaren kutsagarri edukia eta lixibiatuaren ekotoxikotasuna ezingo dira esanguratsuak izan eta, bereziki, ezingo dira arriskutsuak izan azaleko edo lurpeko uren kalitatearentzat.

c) "Eraikuntza eta eraispen obra": Jarduera hau izaten da:

1. Ondasun higiezin bat eraikitzea, zaharberritzea, konpontzea edo eraistea, hala nola eraikuntza bat, errepidea, portua, aireportua, trenbidea, ubidea, urtegia, kirolerako edo aisiarako instalazioa edo ingeniari-tza zibileko antzekoren bat.

2. Lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea, hala nola, indusketak, injezioak, urbanizazioak edo antzekoak, industria erauzketa hondakinen kudeaketari buruzko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren martxoaren 15eko 2006/21/CE Zuzentaraua ezar dakiekeen jarduerak izan ezik.

d) "Eraikuntza txikiko edo etxeko konponketak egiteko obra": Etxe partikular bat, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezin eraikitze edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitze gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketarik egingo ez duena eta titulaturako profesionalak sinatutako proiekturik behar ez duena.

e) "Obra handia": aurreko ataleko definizioan jaso gabeko eraikuntza edo eraispen obra.

f) "Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizlea":

1. Eraikuntza edo eraispen obra bateko hirigintzako lizentziaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa; hirigintzako lizentziarik behar ez duten obretan, eraiki edo eraitsi behar den higiezinaren titularra (nahiz pertsona fisikoa nahiz juridikoa) izango da hondakinen ekoizlea.

2. Tratamendu, nahaste edo bestelako eragiketarik egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa, hondakinen izaeran edo konposizioan aldaketarik sortzen badute.

3. Europar Batasuneko Estatu kideetako edonon eraikuntza eta eraispen hondakinak inportatzen edo erosten dituen.

g) "Eraikuntza eta eraispen hondakinen edukitzailea": Eraikuntza eta eraispen hondakinak eduki eta hondakinen kudeatzaile izaerarik ez duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Hondakin horiek dituen eraikuntza edo eraispen obra egin duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da; hau da, eraikitzailea, azpikontratistak edo langile autonomoak. Dena dela, besteren kontura lanean ari direnak ez dira eraikuntza eta eraiste hondakinen edukitzailetzat hartuko.

h) "Aurretiazko tratamendua": eraikuntza eta eraispen hondakinen ezaugarriak aldatzen dituen prozesu fisikoa, termikoa, kimikoa edo biologikoa, sailkapena barne; hondakin horien bolumena edo arriskugarritasuna murrizten du, manipulatzeko errazagoa da, balorizatzeko potentziala hazten zaio edo hondakindegian izan dezakeen jokaera hobetzen du.

i) "Transferentziaguneak": eraikuntzako hondakinak behin-behinean uzteko instalazioak dira, hondakin horiek distantzia luzeetara dauden instalazioetan tratatu edo deuseztatu behar direnean. Hauen zeregin nagusia hondakinak pilatzea eta garraio gastuak merkatzea da, batzuetan hondakin frakzioak hautatu eta sailkatzeko prozesu txikiagoren bat ere egiten den arren, tratamendu plantetara eta hondakindegietara igorritako EEHen ezaugarriak hobetu asmoz.

j) Tratamenduguneak: EEHak tratatzeko instalazioak dira eta hondakin hauek dituzten zatiak aukeratu, sailkatu eta balioztatu egin behar izaten dituzte, zuzenean erabiltzeko produktuak lortzeko edo balioztatu edo birziklatu daitezkeen beste tratamendu bat egiteko hondakinak lortzeko eta horrelakorik ezin bada, hondakindegian deuseztatzeko. Finkoak edo mugikorrak izan daitezke:

1. "Gune finkoak": inguru itxi batean dauden birziklatzeko instalazioak dira, administrazioaren baimena dute EEHak birziklatzeko; birziklatze lana egiteko dituzten makinak (batez ere txirbila egiteko ekipak) finkoak dira eta ez dira kokatuta dauden tokitik kanpo erabiltzen.

2. "Gune mugikorrak": makina (administrazioaren baimena behar dute) eta birziklatzeko ekipa mugikorrak dira, obretara joaten dira jatorrian birziklatzeko edo balorizazio eta deuseztatze zentroetara joaten dira, zentro horietan behin-behinean aritzeko.

k) "Hondakindegia kontrolatuak": EEHak behin betirako uzteko instalazioak dira (hondakindegien legedian ezarritako epeen gainetik) eta 1481/2001 Errege Dekretuko ezar dakizkiekeen baldintzak bete behar dituzte.

l) "Kudeatzaile baimendua": ordenantza honen ondorioetarako, eskumendun erakundeak aurrez baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa eta kudeaketan sartzen den edozein eragiketa egiten duena, ekoizlea izan edo ez izan. EEHen kudeatzaileak dagokion Erregistroan izena emanda egon behar dira.

m) "Garraiolari baimendua": dagokion erregistroan behar bezala izena emandako pertsona fisiko edo juridikoa; EEHak bildu, garraiatu eta baimendutako kudeatzailearen instalazioetan jarriko dituen.

n) Lehenengo okupazioa: eraikin berrien kasuan, eraikinak edo instalazioak erabiltzen has-teko baimena; zati baten erreforma, erreforma osoa, finkapena eta zaharberritze lanak egin zaizkien eraikin, eraikuntza unitate eta lokalen kasuan eta erabilera aldatu zainenetan edo erabilera horien intentsitatea aldatu zainenetan ere erabiltzen hasteko baimen hau behar izaten da.

o) "Gauzatze materialaren aurrekontua": obren udal lizentzia emateko aintzat hartutako obren aurrekontua; kalkulutik kanpo geratuko dira kontratistaren etekin industrial eta gastu orokorrak, baita balio erantsiaren gaineko zerga ere.

3. artikulua. Aplikazio eremua

Bigarren artikuluan definitutako jardun eta hondakinak ordenantza honen esparruan jaso dira. Aurreko hondakinak esparru honetatik kanpo geratu dira, arriskutsutzat jotako substantziak badituzte; arlo horretan indarrean dagoen legediaren arabera arautu beharko lirateke. Ordenantza honen aplikazioaren lurralde esparrua Navaridasko (Araba) udalerrri osoa izango da.

4. artikulua. Araudia

Ordenantza honek araututako jokaerek indarrean dauden arauak eta gainerako xedape-nak beteko dituzte. Bereziki, eta arautzen ari garen gaiari bereziki lotuta daudelako, aparteko garrantzia dute hauek:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinena eta Kutsatutako Lurzoruena.
- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak Hondakindegietan Biltegitratuta Ezabatzea arautzen duena.
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzekoa.
- Hondakinen Plan Integrala 2008-2015, Ministroen Kontseiluaren 2008ko abenduaren 26ko Erabakiaren bidez onetsitako testua.
- MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Europako hondakinen zerrenda argitaratzen dituena.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen duena.

5. artikulua. Eskumenak

Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak hirugarren artikuluan xedatu zuen "etxeko hondakinak," besteak beste, etxeko konponketa eta eraikuntzetako obra txikietatik iritsitako hondakin eta zaborrak direla. Horrez gain, 12.5 artikulua toki entitateei eman zien etxe, saltoki eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eskumena, kasuan kasuko ordenantzek ezarri bezala, lege honek ezarritako marko juridikoan, baita, hala badagokio, autonomia erkidegoek emandako legeen markoan eta ekoizlearen erantzukizun zabalduko arloan sektoreko araudiak emandakoan ere; horrez gain, ikuskaritza eta zaintza ahalmenak eta eskumenen barruko zehapen ahalmena ere eman zizkien. Jarduera hori Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84.1 artikulua arabera arautu ahal izango da, ordenantzen bidez eta aurrez lizentzia eta kontrolatzeko beste ekintzak burututa.

Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak bere 6. artikuluan eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena, edukitzea eta kudeaketaren kontrola autonomia erkidegoei eta tokiko erakundeei egozten die eta bien arteko lankidetzak eta elkarren arteko laguntza sustatzen ditu.

Bestalde, 105/2008 Errege Dekretuak, bere lehenengo xedapen gehigarrian EDk garatutako EEHen ekoizle eta edukizailerik betebeharretatik (4 eta 5 artikulua) salbuesten ditu etxeko eraikuntza eta konponketako obra txiki guztiak, horiek tokiko erakundeek euren udal ordenantzetan ezarritako baldintzak bete behar baitituzte.

Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak 5. artikuluan ezartzen duenez, udalek fidantza bat egin beharra daukate obra handietako eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, ematen dituzten hirigintza lizentziak lortu ahal izateko.

112/2012 Dekretuak berak, Lehenengo Azken Xedapenean, ezartzen du udalerriek dekretu hau indarrean jarri eta 12 hilabeteko epean udal ordenantzak onartu beharko dituztela estatuko legediak eta dekretu honek ezarritakoari kalterik egin gabe, obra txikietako eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa arautzeko, mugekin, tasekin, eta dagokionean egon daitezkeen fidantzekin batera eta udalerriko bakoitzeko egoeraren eta kasuen arabera.

6. artikulua. Helburuak

Ordenantza honek helburu hauek ditu:

- EEHak obretan bereiztea, materialen arabera, 105/2005 Errege Dekretuan eta 112/2012 Errege Dekretuan ezarritako atalaseetatik abiatuz.
- EEHak kontrolik gabe botatzea eraztea.
- Kudeatzaile baimenduek EEHen tratamendua egitea legedian ezarritako terminoetan.
- Sortzen diren EEHak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko sustapena egitea, baita balioztatzeke beste modu batzuk ere.

7. artikulua. Administrazio publikoek EEHak balioztatzeetik datozen produktuen erabilera eta prebentzioa sustatzea

Udalak obra publikoen kontratuetan eta obra publikoak ematekoetan, preskripzio teknikoaren orrien bidez EEHen berrerabilpenetik edo birziklatzeetik datozen produktuen erabilera sustatuko du.

II. KAPITULUA. EEHen KUDEAKETA

8. artikulua. Araudi orokorrak

Obra egiteko, dena delako erregimen juridikoaren mende egon arren, fidantza bat zehaztuko da obra horretan sortutako eraikuntza eta eraispén hondakin guztiak baimendutako kudeatzaile baten esku jartzeko betebeharra bete dadin.

1. Obra handia: eraikuntza eta eraispen hondakinak sortzen dituenak, hondakinei buruzko gainerako baldintzetan ezarritakoez gain, obraren gauzatze proiektuan eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketaren azterketa sartu beharko du (112/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera idatzia eta, gutxienez, aipatutako 112/2012 Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitako dokumentazioa izango du). Era berean, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizleak fidantza bat jarri beharko du udalaren alde, sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko, ordenantza honen 9. artikuluan zehazten den bezala.

2. Obra txikia: proiektu teknikoaren beharrik ez dagoen obraren kasuan, dena delako erregimen juridikoaren mende egon arren, eraikuntza eta eraispen hondakinak ekoitzi dituenak Udalaren aldeko fidantza bat egin beharko du sortutako EEHak ongi kudeatuko direla ziurtatzeko, ordenantza honetako 9. artikuluan zehazten den legez.

9. artikulua. Fidantza zehaztea

1. Obra handia: nahiz eraispenetako eta eraikuntzako nahiz indusketetako hondakinentzako 8. artikuluan aurreikusitako fidantzaren zenbatekoa, eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketako azterketan ezarritako eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketan aurreikusitako gastuaren ehuneko 120 izango da.

Fidantzaren zenbatekoaren kalkulak hondakinen kudeaketa kostuaren %60 hartuko du, obra gauzatzerakoan hondakin gutxiago sortzen dituzten materialak erabiliz gero, edo eraiki iraunkorrak baldin badira. Egiaztatze lanak egiteko proiektuaren ezaugarriak aztertuko dira, hondakinak kudeatzeko azterlaneko datuak zuzenak direla egiaztatu ahal izateko.

Nolanahi ere, obra handietarako fidantzaren gutxieneko zenbatekoa berrehun eurokoa (200,00 euro) izango da

2. Obra txikia: 8. artikuluan aurreikusitako fidantzaren zenbatekoa honela finkatuko da:

a) Berrogeita hamar euro (50,00 euro), gauzatze materialeko aurrekontuaren zenbatekoa hiru mila eurotik beherakoa bada (3.000,00 euro).

b) Gutxienez ehun euro (100,00 euro) eta gehienez obraren aurrekontu osoaren %5, gauzatze materialaren aurrekontua hiru mila eurotik gorakoa denean (3.000,00 euro).

Obra publikoen proiektuek euren berariazko araudia izango dute eta ez dute fidantza hau ordaindu beharrik izango; dena dela, lurra eta material soberakinak kudeatzeko sistema zehaztuko dute, ordenantza honetako helburuen arabera.

Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemara (EMAS) atxikitako erakundeen erregistroan izena eman dutenak fidantza jartzetik salbuetsita egongo dira, artikulua honen bat etorriz.

Fidantzen gastuak hiru urtetik behin eguneratuko dira, aldi horretan pilatutako KPlaren arabera.

Kalkuluaren oinarrian akatsen bat hautemanez gero, administrazioak eskatzaileari fidantzaren gainerakoa ere eratzeko eska dakioke, aurrekontuaren diferentziari dagokiona.

Eskatzaileak fidantza eskudirutan jarri ahalko du, zor publikoko balioetan, abal bitartez, kausio aseguruaren bitartez, edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutan, edo Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusi bezala.

10. artikulua. Prozedura

Hondakinak dituenak higie eta segurtasun baldintza egokietan mantendu beharko ditu hondakin horiek, bere esku dauden bitartean. Era berean, jada hautatutako frakzioak ez ditu berriro nahastuko, ondoren balioztatzea edo deuseztatzea galarazten edo zailtzen badute.

1. Obra handia: eraikuntza eta eraispén hondakinak 112/2012 Dekretuko 8. artikuluan aurreikusi bezala bereizi beharko dira.

Kasu guztietan eraikuntza eta eraispén hondakinak dituenak egingo du zatikako bereizketa, eta egin ere, hondakinak sortu diren obraren barruan egin beharko du.

Obran espazio fisikorik ez dagoelako teknikoki bideragarria ez bada bereizketa hori jatorrian egitea, edukitzailak hondakin kudeatzaile bati agindu ahal izango dio frakzioak bereizteko, obratik kanpoko eraikuntza eta eraispén hondakinak tratatzeko instalazio batean. Azken kasu horretan, jabeak instalazioaren kudeatzailearengandik eskuratu beharko du atal honetan jasotako betebeharra bere izenean bete duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Sortutako EEHak baimendutako kudeatzaile baten esku jarriko dira, eta honek horiek onartzen dituela dioen ziurtagiria egin beharko du. Ekoizleak udaleko eskumendun organoari igorri beharko dio ziurtagiri hori 30 egun naturaleko epean eta datu hauek izango ditu, gutxienez:

- 1º. Obraren izena eta obraren baimen zenbakia.
- 2º. Ziurtagiriaren data eta aginduaren zenbakia.
- 3º. Obraren kokapena.
- 4º. Onartutako EEHen deskripzio eta kuantifikazio zehatza.
- 5º. EEHen jomuga:

Obrak egingo ez balira, bermea itzultzeko eska dezake ekoizleak.

2. Obra txikia: obra txikitako EEHak entregatzeko tokia hauetako bat izango da:

a) Zuzeneko udal kudeaketa izanez gero, obrako EEHak udalaren kudeatzaile edo partzuergo emakidadunari besterenduko zaizkio.

b) Bestela:

1. Bide publikoan ezarritako edukiontzietara botako dira zuzenean. Edukiontziok EEHak ekoiztiko dituenak kontratatuta egon beharko dira.

2. Baimendutako kudeatzaileetara zuzenean.

3. 100 kilogramo baino gutxiagoko EEH bolumenen kasuan, ekoizleak zuzenean eraman ahal izango ditu bilketagunera edo garbigunera.

11. artikulua. Fidantza itzultzea

1. Obra handia: obrak amaitutakoan, kudeatzaileak azken onarpen ziurtagiria eman eta 30 eguneko epean EEHen onespén ziurtagirien zerrenda osoa aurkeztu beharko du udaleko eskumendun organoan.

Halaber, hondakinen kudeaketako azken txostena ere aurkeztu egin beharko da, obrako zuzendaritza fakultatiboak sinatutakoa; 112/2012 Dekretuko III. Eranskinean zehaztutako ereduarekin bat etorritik prestatu beharko da, eta ingurumen erakundeak egiaztatutako entitate independente batek ikuskatu beharko du; nolahi ere, baliteke aipatutako 112/2012 Dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarrean beste zerbait ezartzea.

EMASi atxikitako erakundearen erregistroan izena eman duten erakundeak aurreko atalean aipatutako kanpo egiaztapenetik salbuetsita egongo dira.

Onespén ziurtagirietako datuak eta eraikuntza eta eraiste hondakinen kudeaketa azterketaren bidez egindako aurreikuspenekoak alderatuko ditu udalak eta obretan ekoiztutako eraikuntza eta eraiste hondakinak kudeatu direla ziurtatzen duten agiriak eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketako planean erabakitakoaren arabekoak direla egiaztatuko du. Bi informazio horiek bat baldin badatoz, fidantza itzuliko zaio. Bat ez baldin badatoz, behar bezalako justifikazioa eskatuko da eta behin hori lortutakoan, fidantza itzuliko da, baina justifikaziorik lortzen ez bada, fidantzaren itzulera blokeatu egingo da.

2. Obra txikia.

a) Udalak zuzenean kudeatutakoen kasuan, kudeatzaileak edo partzuergo emakidadunak ziurtagiri bat egingo du tratatutako hondakin kopuruari eta motei buruz, obra amaitu ondoren. Ziurtagiri hau eta dagokiona ordaindu izana justifikatzen duten egiaztagiria Udalean aurkeztu beharko dira kudeatzaileak edo emakidadun partzuergoak ordaindu eta gehienez 30 egunera.

b) Horrelakorik ezean, kudeatzailearen, transferentzia zentroaren edo bilketagunearen ziurtagiria entregatu beharko, fidantza berreskuratzeke.

12. artikulua. Fidantza betearaztea

EEHak ongi kudeatzeari dagokionean ordenantza honen edukia betetzen ez bada, udalak modu subsidiarioan jokatzuz, fidantza erabiliko du; horrez gain, baliteke Euskal Autonomia Erki-degoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak eta ordenantza honen araubide zehatzaileak berak bestelako zigorrak ezartzea.

13. artikulua. Zerga kuota

EEHen kudeaketa egokia bermatzeko:

a) Obra txikian udalak zuzeneko kudeaketa egin badu, udalak berak ezarriko dizkie hondakinak kudeatzeko tasak dagozkien partzuergoei.

b) Horrelakorik ezean, baimendutako kudeatzaileentzat gutxi gorabeherako prezio hauek jarri dira tratamendurako:

- Eraispenetako eta eraikuntzako hondakinen kasuan: 6,0 euro/hondakin m³.
- Indusketetako hondakinak: 3,00 euro m³ bakoitzeko.

14. artikulua. Lehenengo okupazioko baimena

Indarrean dagoen legediak ezarritako lehenengo okupazioko baimena tramitatzeko, baimendutako kudeatzaileak EEHak onartzen dituela dioen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu EEHen ekoizleak, udaleko erakunde eskumendunari aurkeztu beharreko gainerako agiriez gain. Baldintza hau nahitaez bete beharko da lizentzia lortzeko.

III. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA ETA EUSPEN ELEMENTUAK ERABILTZEA**15. artikulua. Kokapena**

1. Euspen elementuak obrarako itxitako eremuaren barruan jarriko dira, batez ere, eta horrelakorik ezin bada, aparkatzeko baimena dagoen bide publikoko galtzadetan edo espaloietan, jartzerik baldin badago eta oinezkoen pasabidea galarazten ez badu. Galtzadetan edukiontzia jartzeko tokiak aparkalekutzat hartuko dira, Bide segurantzako Legean aurreikusitako ondoretarako.

2. Ahal dela dagokion obraren aurrean edo obratik ahalik eta gertuen jarriko dira.

3. Ezingo dira oinezkoen pasabideetan jarri, ezta horien aurrean edo ezinduentzako pasagune eta beheraguneetan ere, ezta erreserbatutako espazioetan eta geroalekueetan ere, non eta espazio horiek obrak berak ez dituen eskatu eta Udalak baimena eman dien.

4. Euspen elementuak galtzadaren gainean jarri ahal izango dira, aparkatzea baimendu dagoen eremutan, zirkulatzeko 3 metro baino gehiagoko tokia uzten baldin bada libre.

5. Euspen elementuak espaloian ere jarri ahal izango dira, galtzadaren ondoan, igarotzeko metro eta erdiko tokia uzten bada. Edukiontzia erabiliz gero, zurezko edo beste material batekin egindako taulada baten gainean jarri beharko dira, edukiontzia zoladuraren gainean zuzenean ez jartzeko.

6. Aparkatzea galarazita dagoen kaleetan eta espaloien zabalera txikiagatik euspen elementurik jarri ezin den kasuetan, hondakinak obraren barruan biltegitratuko dira eta Udal Agintaritzak kalea mozteko baimena eman ondoren, garraioaz arduratuko den kamioira zuzenean kargatuko dira.

16. artikulua. Kokatzeko era

1. Ibilgailuen ikusteko gaitasuna ezingo dute txikitu, bereziki bidegurutzeetan, aparkatzeko ezarritako distantziak errespetatu beharko dituzte, ibilgailuen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloan dagoen araudia beteaz.

2. Espaloitik 0,20 m-ra kokatuko dira, azaleko urak errepede hertzeko erretenetik gertueneko kainozulora joan ahal izateko.

3. Euspen elementuak gehienez ere 2 metro irtengo dira behar bezala aparkatutako ibilgailuek eratzen duten kanpoko aldeko lerrotik.

4. Inondik eta inora ere ezingo dira osorik edo zati batean zerbitzu publikoetarako tapen gainean jarri, ezta ureztatze ahoetan, ur hartuneetan, zuhaitz txorkoetan edo erregistroetan, ezta hiriko beste inolako elementuren gainean ere, egoera normaletan edo larrialdietan normal erabiltzea galaraziko balute.

5. Hondakinen sortzailea izango da edukiontziak bide publikoan duen kokapenaren azken erantzulea; horregatik, neurri egokiak hartuko ditu garraiolariek euspen elementua leku zuzen eta egokian utzi dezan.

17. artikulua. Erabilera

1. Berariaz debekatzen da hondakinentzako baimendutako ontzietan 2. artikuluan ezarritako definizioen arabera baimenik ez duten hondakinak uztea.

2. Auzokoei eragozpenik ez sortzeko, bide publikoan dauden ontzietara bota behar diren hondakin bizigabeak edo bete behar diren edukiontziak, obrak egiteko baimendutako ohiko ordutegiaren barruan egingo dira, aitortutako premia duten kasuetan izan ezik, Udalaren berriazko baimenarekin.

3. Euspen elementuaren erabiltzaileak ezingo du inoiz ere goiko gehienezko muga baino gehiagoko isurketarik egin, eta elementu horren neurria edo gaitasuna hazteko osagarrikerik ere ezingo du erabili.

4. Laneko ordutegia amaitutakoan edo edukiontzi guztiak betetakoan, edukiontziak olanekin edo beste bitartekoren batekin estaliko dira, beste batzuek bizigabeek ez bezalako ezaugarriak dituzten hondakinak bota ez ditzaten. Bertako materialak kanpora ez irteteko moduan estaliko da edukiontzia.

5. Euspen elementu horiek betetakoan, hondakinak dituenak jakinarazi beharko dio garraiolariei elementu horiek eramatera etortzeko.

6. Ontziak edo edukiontziak kontratatze edo alokatze, hondakinak dituenek bide publikoa okupatzeko lizentziaren fotokopia aurkeztu beharko du.

Edukiontzi jabeek edo garraiolariek ezingo dute ontzirik alokairuan eman, hondakinak dituenak (obren sustatzaileak edo kontratistak) obrako baimenik edo ekintza komunikaturik ez badu.

18. artikulua. Bide publikoa garbitzea

Zamalanen ondorioz bide publikoan hondarrak geratuko balira, hondakinak sortu dituenak berehala garbitu beharko du bide publikoaren erasandako tarte hori eta horrelakorik egiten ez badu, bera izango da erantzulea.

19. artikulua. Ontziak jarri eta kentzeko lanak

Ontziak instalatu eta kentzeko lanak, dagozkien baimenei edo lizentziei kalterik egin gabe, herritarrei inolako oztoporik sortu gabe egin beharko dira, zehaztapen hauen arabera:

a) Bertako edukia bide publikora ez erortzeko moduan erabiliko dira eta eduki hori ezingo du haizeak altxa edo zabaldu.

b) Bide publikoan erabili den azalera eta bere inguruak garbi geratu behar dira.

c) Zoladuran edo bide publikoko beste elementuetan eragin ahal izan diren kalteak konpondu behar dira, udal zerbitzuei berehala emango zaie horren berri, jabari publikoa jatorrizko egoerara itzultzeko obrak hasi aurretik, eta udal jarraibideen eta ordenantzen arabera burutuko dira lanak.

20. artikulua. Euspen elementuak kentzea

Euspen elementuak bide publikotik kenduko dira:

a) Gehienez ere 48 orduko epean, obra amaitzen denetik edo haren instalazioa babesten duen bide publikoa okupatzeko lizentziaren indarralditik aurrera.

b) Edukiontzia hondakinez beteta egonez gero, berehala kenduko dira.

c) Dagokion udal agintaritzak justifikatutako arrazoiren batengatik hala eskatuz gero, adierazitako epean kendu beharko dira.

IV. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENA

21. artikulua. Udal agintarien mende jartzea

Ordenantza honen mendeko euspen elementuak bide publikoan jartzea udal baimenaren mende egongo da, obra batean behar bezala itxitako gunearen barruan jartzen ez badira behintzat.

22. artikulua. Bide publikoa okupatzeko eskaera

1. Jartzeko baimenaren eskaera hondakinak dituenak egingo du, hondakinak sortzeko jarduera babesten duen baimena edo lizentzia adieraziaz.

2. Eskaera hori egin eta berehala ebatzi ahal izango da dagokion lizentziarekin edo baimenarekin, eta datu hauek izan beharko ditu:

a) Eskatzailearen datuak.

b) Hondakinak sortuko dituen jardueraren lizentziaren edo baimenaren edo, dagokionean, horren eskaeraren fotokopia.

c) Krokisa obraren kokapenarekin.

d) Aldi berean beharko diren elementu motak eta kopurua identifikatu eta unitate bakoitzaren gaitasuna adierazi.

e) Edukitze jarduera hasiko den gutxi gorabeherako data eta bide publikoan egongo den azkeneko eguna.

f) Garraio enpresa.

g) Obrako kontratistaren identifikazioa.

3. Eskaeren tramitazioak ordainarazpenak sortuko ditu eta eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

23. artikulua. Egoteko eta kentzeko baldintza bereziak

1. Dagokion lizentzian edo baimenean ontziak eremu edota ordu jakin batzuetan egotea mugatu daiteke.

2. Era berean, emandako lizentziek edo baimenek betebeharrak bete beharko dute; hau da, ontziaren erantzuleak bide publikotik kendu beharko du ontzia ekitaldi publikoak egiteko edo interes orokorreko beste arrazoiren batengatik eskatuz gero. Eskaera egitean kentzeko epea ere adieraziko da.

24. artikulua. Ontzia jartzeko lizentzia edo baimena eskualdatzea

Ontzia jartzeko lizentzia edo baimena eskualdatzearen berri idatziz emango zaio udal administrazioari. Jakinarazpen hau eskualdaketa gertatu aurretik egingo da edo eskualdaketa egin eta hurrengo egunetik hasita hamar egun balioduneko epean. Eskualdatu duenak eta titular berriak sinatuta egongo da jakinarazpena.

V. KAPITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA**25. artikulua. Zehapen araubidea**

Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako zehapen araubidea aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean jarri aurretik hasitako espedienteak abiarazi ziren unean indarrean zeuden xedapenen arabera izapidetuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratzen denetik hamabost egunera jarriko da indarrean.

Bigarrena. Ordenantza honetan araututako gaiei eragiten dieten eta ordenantza honena baino maila handiagoko arauak egiten badira etorkizunean, arau horiek automatikoki aplikatuko dira, eta, ondoren, ordenantza egokitu egingo da, beharrezkoa denean.

Hirugarrena. Ordenantza hau indarrean sartzean maila bereko udal araudi guztiak indargabetuta geratuko dira honen aurka badaude edo ordenantzan araututakoarekin bat ez badatoz.

Navaridas, 2020ko urtarrilaren 10a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ